



Begira, badator maiatza... eta badoa



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

U daberriari neguak darraio maiz politikan, naturan ez bezala. Zenbat *udaberri polit-iko* zapuztu dituen izotzak! Batean, eskuin muturraren oldeak izozten die bihotza ordura arte “Historian inoiz izan den” goberneurik aurrerazaleenaren emaitzen itxaropenean bizi zirenei. Bestean, independentziaren aldeko herri mugimendu indartsuak sinetsi ezinik begiratzen du, hauteskundeetan gehiengoak lortu arren, barne katramiletan nahastu eta aurrera egin ezinik elkar trabatuta dabil-tzan ordezkari politikoen espektakulua. Hirugarrenean, kudeatzaile bikainaren fama zeukan tokiko gobernuaren oso bestelako irudia agertzen zaigu gobernatu sufrituoi begien aurrean. Ekonomiaren eta gizartearen kontrola galdua dabilen gobernuaren pertzepzioa da nagusi.

Zergatik ez dira, bada, egonkortzen eta garatzen udaberri politikoak gurean? Uda betera heldu ahal izateko, zer heldutasun falta zaie?

Aipatu ditugun hiru kasuotan, prozesu bakoitzak baditu bere ezaugarri bereziak, egia esan; lehenengoan, Espainiako Estatuako koalizio gobernuak, jaiotzatik bertatik lortu zituen babesei esker eta gobernu-osaketan inplikatu ziren eragile zehatzen merituz, udaberriaren promesa indartsua zekarren. Ohiko buruzagi sozialista espainiar oso pitzatuen ordeiz, Sánchezen adar berri-tua eta are ezkerreko agertzen zen

Estatu espainiarraren
erreforma saioaren
porrota zertifikatuta
geratu da Pablo
Iglesiasen gobernu
abandonatu duenean

Podemos elkartu ziren koalizioan. Al-daketak burutzeko aukera eta indarra baziren hor, gainera eskuin espainiarra noraezean eta ustelkeriak jota agertzen zen unean. Baina ez dituzte ez indarra ez aukera erabili, horretarako beharra zegoenean: Kataluniarekin duten gatazkan ez dira gauza izan ezer eskaintzeko, Espainiako Estatu ko gobernu guztiek beti egin dutenaz haratago. Monarkia krisi larriak jota zegoen unean, Errepublikaren bidea zabaltzeko pausurik ere ez. Ez lan merkatua aldatu, ez etxeen alokairu politika berria saiatu, ez erreforma fiskalik... Eskuinaren aurkako diskurtsoak bai, baina estatuaren oinarriak sendo finkatuz gai nagusi horietan.

Koalizio gobernuaren beraren krisia baino urrunago, Espainiako Estatu aren erreforma saioaren porrota zertifikatuta geratu da Pablo Iglesiasen gobernu

abandonatu duenean. Ondoren ikusten ari garena, udaberri laburregi baten atzetik betiko neguaren etorrera baino ez da.

Kataluniaren kasuan, dagoeneko nabaria da era horretako prozesu mamitsu, larri, sakon eta erabakigarri baten zuzendaritza ezin dela alderdi zehatz baten, kasu honetan ERCren interpretazio aski bitxi eta aldakorren menpe utzi. Katalunian lortu den herritarren mobilizazio eta antolakuntza mailak, bate-tik, eta independentziaren helbururantz emandako urratsek, bestetik, akordio estrategiko sendo eta sakonak eskatzen dituzte orain. Horiek gabe ez dauka zentzurik koalizio-gobernu artifizialak saiatzeak. Ez badugu, berriz ere, udaberritik negura jauzia egin nahi.

Zer esan Euskal Autonomi Erkidegoan eta are Euskal Herri osoan gertatzen ari denaz. Kudeatzaile onaren mitoa lurretik erori zaio Urkulluren gobernuari: krisialdi egoeran erabaki larriak hartu behar eta ahalmenik ez, Madrili erreguka. Azpiegituretan, gobernu-proiektu guztiak zuloan. Industria politikan, enpresariei beti amen esateak dakarren ondorioa, Zaldibar baino haratago, Tubacex, Euskaltel, BBVA, Iberdrola, Petronor eta enparauen “itzaleko gobernu erreala” nabarmen. Urkulluren Jaur-laritzak galdu du agente-lemaren kontrola hain justu gizarte krisi larriaren erdian.

Helburu argiak betetzera datozen gobernu sendoak behar, han eta hemen. ●